Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

# 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

**Akta zenbakia:** 6/2004
**Bilera data:** 2004-05-18
**Bilera mota:** Ez ohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordua:** 17:00 – 18:15
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratutakoak:**
**Alkatea:** Florentino Ugalde Atxaga
**Zinegotziak:**
Maria Isabel Vaquero Montero
José Luis Aramendi Goikoetxea
José Maria Aldanondo Ugalde
Maria Ángeles Iriondo Múgica
Gaspar Esnaola Agesta
Mª Teresa Pagazaurtundua Ruiz
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos González
José Guirado Novo
José Manuel Funes Rivas
Juan Maria Tomasena Alzuri
Mª Asunción Guerra Alonso

**Bitarteko idazkaria:**
Beatriz Garate Cortabarria
**Aholkulari ekonomilaria:**
Virginia Sabando Ortiz

**Aztergaiak:**

1.- 2004ko apirilaren 6an hasierako izaeraz onartu zen 2004.ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren aurka aurkezturiko erreklamazioen erabakiak.

**Acta nº:** 6/2004
**Fecha:** 18-05-2004
**Tipo de reunión:** Pleno extraordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 17:00 – 18:15
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Reunidos:**
**Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga
**Concejales:**
Maria Isabel Vaquero Montero
José Luis Aramendi Goikoetxea
José Maria Aldanondo Ugalde
Maria Ángeles Iriondo Múgica
Gaspar Esnaola Agesta
Mª Teresa Pagazaurtundua Ruiz
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos González
José Guirado Novo
José Manuel Funes Rivas
Juan Maria Tomasena Alzuri
Mª Asunción Guerra Alonso

**Secretaria interina:**
Beatriz Garate Cortabarria
**Asesora economista:**
Virginia Sabando Ortiz

**Orden del día:**

1.- Resolución de reclamaciones entabladas contra el Presupuesto General del ejercicio 2004, aprobado inicialmente el 6 de abril de 2004.

# 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

**1.- 2004ko apirilaren 6an hasierako izaeraz onartu zen 2004. ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren aurka aurkezturiko erreklamazioen erabakiak.**

Alkateak hartu du hitza Osoko Bilkurari hasiera emateko. Alkateak adierazi duenez, Aurrekontuari ipinitako erreklamazioak ikusita eta horiek eztabaidatzen hasteko, osoko bilkura honen prozedura ezarriko dute. Lehenik eta behin esan duenez, erreklamazioak bozkatu behar ote zireneko auzia ez zegoen batere garbi; horregatik, han eta hemen galdetu ondoren, prozedura garbia izan eta parte-hartze handiagoa egon dadin, honelaxe egitea erabaki da: huts-hutsean formazkoak ziren auziak ebatzita geratu dira horietarako burutako txosten teknikoetan (zinegotzi guztiei eman zaizkie txostenok); horrenbestez, ebatzita daudela jo da. Orain, beraz, funtsari dagozkion erreklamazioak ebazteari ekingo zaio, PSOE-EEk aurkeztutakoekin abiatuta. Alkateak dioenez, zalantzarik egonez gero, idazkariak legez azaldu dezake zein den prozedura. Ondoren, Alkateak PNV-EA udal-taldeko bozeramaileari Mª Isabel Vaquero Monterori eman dio hitza, eta, Udalak normaltasunez dihardueIa erakusteko, Aurrekontuaren aurkako funtsezko erreklamazioak banan bana aztertzea proposatu du. Hala, PSE-EEk ezarritako lehen erreklamazioa irakurtzeari ekin dio:

*"Hasieran onartutako aurrekontuak zorpetzea handitu egiten du % 9,51tik % 10,15era"*

Mª Isabel Vaquero Monterok azaldu duenez, ondoren bozkatzekoak diren zenbait erreklamazio daudenez, ezinezkoa da azken zorpetzea zenbatekoa izango den jakitea; bada, erreklamazio horiek aintzat hartzen diren edo baztertu egiten diren kontuan izanda, zorpetzea

**1.- Resolución de reclamaciones entabladas contra el Presupuesto General del ejercicio 2004, aprobado inicialmente el 6 de abril de 2004.**

Toma la palabra el alcalde para dar comienzo al presente Pleno. El Alcalde ha expuesto que vistas las reclamaciones al Presupuesto y al objeto de proceder a su discusión van a establecer el procedimiento de este Pleno. En primer lugar ha dicho que no resulta claro, y que en tal sentido han efectuado consultas, que las reclamaciones tengan que someterse a votación, pero en aras a una mayor transparencia y participación, van a hacerlo de la siguiente forma: Las cuestiones meramente formales han quedado resueltas en los informes técnicos elaborados al respecto que obran en poder de todos los corporativos, por lo que las consideran definitivamente resueltas; Van a proceder a resolver las reclamaciones de fondo, iniciando con las reclamaciones del PSOE-EE. Sigue diciendo que, en todo caso si hay alguna duda, la Secretaria puede aclarar legalmente cuál es el procedimiento. A continuación el Alcalde ha cedido la palabra a la portavoz del grupo municipal PNV-EA, Mª Isabel Vaquero Montero quien ha dicho que, con la intención de transmitir normalidad en el funcionamiento del Ayuntamiento, su propuesta es entrar una por una a las reclamaciones de fondo contra el Presupuesto. Asi ha comenzado dando lectura a la primera reclamación interpuesta por el PSE-EE:

*"El presupuesto objeto de aprobación inicial incrementa el endeudamiento del 9,51% al 10,15%".*

Mª Isabel Vaquero Montero ha expuesto que, debido a que hay varias reclamaciones que han de ser votadas posteriormente no es posible cifrar el endeudamiento final, porque dependiendo de la estimación o desestimación de las reclamaciones, el endeudamiento puede ser

handiago edo txikiagoa izango da. Nolanahi ere, Udalek, gehienez ere, % 25eko zorra har dezakete.

Ondoren, bigarren erreklamazioa irakurri da:

" *Kanpo aholkularitzako, lanetako eta gastu juridikoetako gastu arrunta gehiegizkoa da (256.950 euro), eta horrek kudeaketa-gaitasuna txarra dela ematen du aditzera. Horregatik, gastua gutxienez % 20 murriztea eskatzen dugu*".

Alkateordeak esan duenez, erreklamazioan ez dira kontu-sailak zehaztu; horregatik, atal hori zehaztu dezala eskatu dio partidu sozialistari, erreklamazioa bozkatu ahal izateko. PSE-EEko zinegotziak, Hermenegildo Gonzalez Moranek gastu arruntaz dihardutela erantzun dio –kanpo aholkularitza, lan eta gastu juridikoen gastu arruntaz hain zuzen–, eta hori maila orokorrekoa dela. Alkateordeak, ordea, erreklamazioa bozkatu ahal izateko zein kontu-sailez ari den zehaztu behar duela ihardetsi dio. Jarraian, PSE-EEko bozeramaleak, Mª Teresa Pagazaurtundua Ruizek hartu du hitza, eta esan duenez, Osoko Bilkurak Alkatetzaren izendapen askeko bi kargu (aholkularitza juridikoa eta aholkularitza ekonomikoa) onartu zituenean, Alkatetzak bere funtzio gehienak betetzeko kanpo aholkularitzaren beharrik ez zuela izango jo zuten, eta, beraz, ez dira joko horretan sartuko; hala, erreklamazio horren atzean planteamendu politikoa dagoela berretsi du. Alkateordeak, berriz, ezinbestean kontu-sail horiek zeintzuk diren eta zenbat murriztu beharko liratekeen adierazi behar dutela erantzun dio. PSE-EEko bozeramaleak erreklamazioa bozka dezatela ihardetsi dio, eta gero gobernu-taldeak manu hori bete dezala; izan ere, euren iritziz, aurrekontuen ardurapekoa da zerbitzua hobetzea, eta horrek doitasuna ekarri behar du, eta halaxe ulertu behar dute. Hortaz, alkateordeak doitasun-neurri hori bozkatzea proposatu du. Hauxe izan

mayor o menor. De todas formas aclara que el endeudamiento posible de un Ayuntamiento es hasta el 25%.

Seguidamente, ha procedido a dar lectura a la segunda reclamación:

" *El gasto corriente en asesorías externas, trabajos, gastos jurídicos es excesivo (256.950 €) y ello es síntoma de una deficiente capacidad de gestión. Solicitamos una reducción no inferior al 20%*".

La teniente-alcalde ha dicho que no se especifican las partidas y ha pedido al partido socialista que concreten esto para poder someter la reclamación a votación. Le responde el concejal del PSE-EE, Hermenegildo Gonzalez Moran diciendo que están hablando del gasto corriente en asesorías externas, trabajos, gastos jurídicos, etc., que es a nivel general. Le contesta la teniente-alcalde que hay que concretar a qué partidas se están refiriendo para proceder a la votación. A continuación toma la palabra la portavoz del PSE-EE, Mª Teresa Pagazaurtundua Ruiz para decir que cuando el Pleno aprobó dos cargos de libre designación por Alcaldía, asesora jurídica y asesora económica, consideraron que la Alcaldía quedaba garantizada en la mayoría de sus funciones para no depender de un asesoramiento exterior; por lo tanto no van a entrar en ese juego; sigue diciendo que es un planteamiento político el que realiza esta reclamación. Le responde la teniente-alcalde que ellos necesitan concretar en cuánto tienen que reducirse esas partidas y cuáles son. Le responde la portavoz del PSE-EE que se someta a votación y después el equipo de gobierno deberá ejecutar ese mandato ya que los que apliquen el presupuesto deben ser los que realicen esa eficacia en la mejora del servicio, que es una medida de austeridad y que lo entiendan así. Por lo tanto, la teniente-alcalde ha propuesto someter a votación esa medida de austeridad. El resultado

da bozketaren emaitza:

Alde: 7 (5 PSE-EE, 1 PP, 1 IU)
Aurka: 6 ( PNV-EA)
Abstentzioa: 0

Ogasun, Ondare eta Enpleguko Informazio Batzordean, 2004ko maiatzaren 13an, auzi horren gainean eztabaidatu eta informatu zela ikusita.

Bozketaren ondoren, Osoko Bilkurak Udalbatzaren gehiengo osoa osatzen duten kideen aldeko botoaz, hartu du ondorengo

**AKORDIOA**

**Lehena eta bakarra.-** PSE-EEk ezarritako erreklamazioa aintzat hartzea, kanpo aholkularitzako, lanetako eta gastu juridikoetako gastu arrunteko doitasun-erabaki gisa ulertuta.

Bozketaren ostean, PPko zinegotziak, Mª Asuncion Guerra Alonsok hitza eskatu du, erabaki horren bidez udal-gobernuak nahi duen zenbatekoa murriztu ote dezakeen galdetzeko. Baietz erantzun zaio; izan ere, ez dira kontu-sailak eta kopuruak aipatu, eta asmo politiko gisa azaldu da erabakia –alegia, doitasun-erabaki gisa. PPko zinegotziak adierazi duenez, ez du ez hankarik ez bururik zenbatekoa jaitsi dadila eskatzea baldin eta ez bada zenbateko hori zehazten; bada, horren arabera, udal-gobernuak, esate baterako, 50 euro soilik murritz dezake kontu-saila, eta hori burugabea da; gainera, horrela ezin da lan egin. Orduan, PNV-EAko zinegotziak, Jose Mª Aldanondo Ugaldek hartu du hitza, PPko zinegotziari auzi hori jada azaldu dutela erantzuteko; bada, bere taldeak (PNV-EAk) talde sozialistari galdetu egin dio zein partidaz ari ziren, baina asmo politiko hutsa agertzeko erantzun diete sozialistek; beraz, erreklamazioa ere politikoki aplikatuko dela

de la votación ha sido el siguiente:

A favor: 7 (5 PSE-EE, 1 PP, 1 IU).
En contra: 6 ( PNV-EA)
Abstenciones: 0

Visto que en la Comisión Informativa de Hacienda, Patrimonio y Empleo del 13 de mayo de 2004 se debatió e informó sobre este punto.

Tras la votación, el Pleno con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría absoluta de la Corporación, adopta el siguiente

**ACUERDO**

**Primero y único.-** Estimar la reclamación interpuesta por el PSE-EE, entendida como medida de austeridad en el gasto corriente en asesorías externas, trabajos, gastos jurídicos.

Tras la votación, la concejal del PP, Mª Asuncion Guerra Alonso pide la palabra para preguntar si, tomado este acuerdo, el gobierno municipal puede reducir la cantidad que quiera; Se le contesta que así es, ya que no se han mencionado partidas ni cantidades y se ha expuesto como intención política, como medida de austeridad. La concejal del PP comenta que es absurdo decir que rebajen esa cantidad sin concretar y que luego, el gobierno municipal reduzca, por ejemplo, 50 euros, dice que es absurdo y que así no se puede trabajar. Entonces toma la palabra el concejal del PNV-EA, Jose Mª Aldanondo Ugalde para responder a la concejal del PP que ya lo han explicado, que han preguntado qué partidas son y la respuesta ha sido que es una intención política, por lo tanto, aplicarán esa estimación de la reclamación políticamente y verán dónde se puede reducir. Sigue exponiendo el concejal del PNV-EA que el Presupuesto se compone de gastos e ingresos y

azaldu dio PNV-EAko zinegotziak, eta aurrekontua nondik murritz daitekeen aztertuko dutela. PNV-EAk jarraitu duenez, gastuek eta diru-sarrerek osatzen dute Aurrekontua, eta biek elkarrekin ondo ezkondu behar dute; beraz, lehenik, zein kontu-sail igoko diren ez zein jaitsi jakin beharko lukete; hortaz, sozialistek erreklamazioa asmo politikoa dela eta udal-gobernuak aurrekontua asmo hori gogoan duela kudeatu beharko lukeela badiote, orduan, PNV-EAk ados dagoela adierazi du, eta, beraz, zorroztasunez jokatuko duela gastuak kudeatzerakoan. Ondoren hitza hartu du PSE-EEko bozeramaleak Mª Teresa Pagazaurtundua Ruiz-ek, eta aholkularitzaren auzi hori guztiz itxita ez dagoela esan du, eta gobernuak Aurrekontua gauzatzerakoan ebatzi beharko duela auzia. Orobat adierazi du haiek ildo politikoa argudiatzen ari direla, eta udal-gobernuak doitasunez aplikatu eta gauzatu beharko duela gastuaren auzia.

que tienen que cuadrar, que habría que saber qué partidas suben o bajan; entonces si dicen que es una intencionalidad política y que el gobierno municipal lo debe gestionar con esa intencionalidad, entonces vale, serán austeros en estos gastos. Después toma la palabra la portavoz del PSE-EE, Mª Teresa Pagazaurtundua Ruiz para decir que el capítulo de las asesorías no es absolutamente cerrado, que a la hora de ejecutar el Presupuesto, el gobierno deberá ir solventando, que es una directriz política que ellos están alegando y que el gobierno municipal deberá aplicar, deberá ejecutar con austeridad este capítulo de gasto.

Jarraian, alkateordea hurrengo erreklamaziora igaro da:

*"Publizitateko eta propagandako gastuak ere gehiegizkoak dira (78.580 euro); horregatik, gastua gutxienez % 20 murriztea eskatzen dugu. Gure taldea, zehazki, bi atalen aurka dago, alegia bai zenbatekoaren aurka bai Prentsako Kabinetearen jardunaren aurka, funtzio publikoa alderdikeriaz erabiltzen baitu azken horrek".*

Alkateordeak otoi eskatu die zein kontu-sailez ari diren eta zenbat jaitsi beharko liratekeen zehazteko, haiek ez baitakite; halaber, esan duenez, Udaleko publizitate eta propagandako partiden II. kapituluan kontu-sail batek 12.000 euro ditu eta beste batek 9.000 euro; beraz, horiek batuta ez dute inondik inora osatzen aipatu duten kopuru hori. Prentsa-kabineteari dagokionez, gogora ekarri du Gobernu-Batzordearen erabakiz kontratatu zela urtebeteko kontratuz; hortaz, indarrean dagoen

Seguidamente, la teniente-alcalde pasa a la siguiente reclamación:

*"Los gastos en publicidad y propaganda son también excesivos (78.580 euros), solicitamos una reducción de gasto no inferior al 20%. Particularmente nos oponemos tanto a la cuantia como a las funciones desempeñadas por el Gabinete de Prensa, que hace uso partidista de la función pública".*

La teniente-alcalde solicita por favor que concreten a qué partidas se refieren y cuánto hay que bajarlas, porque realmente no lo saben; ha comentado que en el Capítulo II en las partidas de publicidad y propaganda del Ayuntamiento tienen una partida de 12.000 euros y otra de 9.000 euros, que no suman en ningún caso la cantidad referida. En cuanto al Gabinete de Prensa ha comentado que se contrató por acuerdo de la Comisión de Gobierno y que hay un contrato durante un año; por lo tanto, ha

kontraturen bat bertan behera utzi egin behar bada, erabaki horren alde bozkatzen duten zinegotziek erantzukizun pertsonalak izan ditzaketela. PSE-EEko bozeramaleak erantzun dio bere taldea Prentsa-kabinetearen aurka dagoela erabat eta, euren iritziz, kendu egin beharko litzatekeela, alperrekoa baita. Alkateordeak gogora ekarri duenez, Gobernu-Batzordearen erabakiz egin zen kontratua eta zinegotzi bakar batek ere ez dio aurka egin; beraz, indarrean jarraitzen du guztiz; alkateordeak berriro eskatu die adieraz dezatela zein partidaz ari diren, eta PSOE-EE bozeramaileak erantzun dio Osoko Bilkurari bete-betean ez dagokion eremura eraman nahi dituztela. Berriro adierazi du, halaber, 78.580 euroko zenbatekoa orokorra dela eta Prentsa-kabinetea, zalantzarik gabe, horren zati bat dela; gainera, horretarako daudela aholkulariak, alegia, eurek proposatutako kontzeptua teknikoki adierazteko. Alkateordeak dio Kontu-hartzailetzak ez duela ulertzen nola egokituko zaion hori Aurrekontuari; ebatzi beharreko erreklamazio gehiago dagoela eta ezinbestekoa dela zein aurrekontu-sail murriztu behar diren jakitea. Orduan, PSE-EEko zinegotziak, Jose Manuel Funes Rivas-ek hartu du hitza, euren erreklamazioak oso garbi daudela esateko, eta horixe dela bozkatu beharrekoa; gero Kontu-hartzailetzak azalpenik eskatzen badu, eurek emango diotela. Jose Manuel Funes Rivasek jarraitu duenez, beren proposamenari buelta ematen saiatzen ari dira Aurrekontu alternatiboa aurkez dezaten; eta hori ez dela eztabaidaren helburua gaineratu du.

recordado que si hay que incumplir algún contrato vigente los concejales que voten a favor de ese acuerdo podrán incurrir en responsabilidades personales. Le responde la portavoz del PSE-EE que ellos están absolutamente en contra del gabinete de prensa y piensan que debe suprimirse por innecesario. La teniente-alcalde expresa que la contratación es un acuerdo adoptado por la Comisión de Gobierno, que no ha sido impugnado por ningún corporativo y por lo tanto es un acuerdo firme en vigor; la teniente-alcalde repite qué concreten a qué partidas se refieren; entonces le contesta la portavoz del PSOE-EE que están intentando llevarles a un terreno que no es estrictamente el de este Pleno; sigue diciendo que 78.580 euros es una cantidad global y que el gabinete de prensa es una cantidad parcial, que no hay ninguna duda y además para eso están los asesores, para trasladar técnicamente el concepto que ellos proponen. La teniente-alcalde dice que desde Intervención no se entiende cómo se va a ajustar este Presupuesto, que hay unas reclamaciones para resolver y que necesitan saber qué partidas presupuestarias hay que reducir. Entonces toma la palabra el concejal del PSE-EE, Jose Manuel Funes Rivas para decir que sus reclamaciones están muy claras y es lo que hay que votar, que si luego Intervención pide alguna aclaración se le dará. Continua Jose Manuel Funes Rivas diciendo que están intentando dar la vuelta a su proposición para que presenten un Presupuesto alternativo y ese no es el objeto de este debate.

Orduan, alkateak ea argitzen ari ote diren galdetu die PPko eta IUko zinegotziei; era berean, PPko zinegotziari esan dio Kontu-hartzailetzari –hain zuzen ere, Aurrekontua egin duen pertsonari– horri buruz galdetu egin behar zaiola. Orduan ekonomia-aholkulariak, Virginia Sabando Ortizek hartu du hitza, hasieran

Entonces, el Alcalde pregunta a los concejales del PP y de IU si se están aclarando y la concejal del PP dice que hay que preguntar a Intervención, a la persona que ha elaborado el Presupuesto; entonces toma la palabra la asesora económica, Virginia Sabando Ortiz para decir que hay un presupuesto inicialmente aprobado y

## 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

onartutako aurrekontua dagoela gogorarazteko; hala, adierazi duenez, zenbait alegazio aurkeztu dira aurrekontu horren gainean, eta zenbakiz zehaztu behar dira, behin betiko onartutako Aurrekontuan horiek gauzatu ahal izateko; bestalde, Udalak propagandarako eta publizitaterako emandako kontu-sailak, guztira, 21.000 eurokoak direla berretsi du, eta, horrexegatik eskatzen ari direla zein kontu-sailetatik zein zenbateko murriztu behar den adierazteko. PPko zinegotziak dio halaxe egin beharko litzatekeela, baina, ez bada horrela egiten, galdetu du ea nork erabakitzen duen zenbatekoa nondik kendu eta non jarri, udal-gobernuaren erabakia baldin bada, ez duelako ulertzen zein eginkizun duen Aurrekontuetan.

ante ese presupuesto se han presentado unas alegaciones que hay que concretar numéricamente para poder materializarlas en el Presupuesto definitivamente aprobado; sigue diciendo que las partidas de propaganda y publicidad del Ayuntamiento suman 21.000 euros y no la cantidad señalada; entonces lo que se está pidiendo es que concreten de qué partidas hay que reducir y qué cantidad. La concejal del PP dice que así habría que hacerlo y sino es así pregunta quién decide después de donde se quita y donde se pone, porque si lo decide el gobierno municipal no entiende su papel en los Presupuestos.

Ondoren, IUko zinegotziak, Juan Mª Tomasena Alzurik hartu du hitza, eta aditzera eman duenez, Aurrekontua aldatzeko malgutasun handiagoa egongo zela uste zuen; Prentsa-kabineteari dagokionez, berriz, zerbitzua negargarria izaten ari dela uste du, Udalaren alderdi bakar bateko Prentsa-kabinete gisa besterik ez dihardudelako. Zinegotzi horren iritziz, zenbatekoa nondik kendu eta non jarri besterik ez da eztabaidatzen ari liskar honetan, baina bere kezka funts-funtsari dagokio, hain zuzen ere, aurtengoan ez litzakeela horrelako aurrekonturik egon behar, eta aitzitik, erabilitako prozedurari esker, egon, egongo dela.

Después toma la palabra el concejal de IU, Juan Mª Tomasena Alzuri para decir que él pensaba que habría más holgura para cambiar el Presupuesto; en cuanto al gabinete de prensa considera que el servicio está siendo nefasto porque está siendo el gabinete de prensa de una parte del Ayuntamiento. Continua diciendo que él está entendiendo este rifi-rafe a ver cómo se ajusta, de dónde se quita y de dónde se pone, pero a él lo que le preocupa es el problema de fondo, que este año no podía haber este tipo de Presupuesto y lo va a haber, por el procedimiento que se ha utilizado.

Alkateak amaitutzat jo du eztabaida, eta PSE-EEk aurkeztutako erreklamazioari jarraiki % 20ko murrizketa bozkatzea proposatu du. Hauxe izan da bozketaren emaitza:

El Alcalde da por finalizada la discusión y propone someter a votación la reducción del 20% de lo que se propone en la reclamación presentada por el PSE-EE. El resultado de la votación ha sido el siguiente:

Alde: 7 ( 5 PSE-EE, 1 PP, 1 IU)
Aurka: 6 ( PNV-EA)
Abstentzioa: 0

A favor: 7 ( 5 PSE-EE, 1 PP, 1 IU)
En contra: 6 ( PNV-EA)
Abstenciones: 0

Ogasun, Ondare eta Enpleguko Informazio Batzordean, 2004ko maiatzaren 13an, auzi

Visto que en la Comisión Informativa de Hacienda, Patrimonio y Empleo del 13 de mayo

# 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

horren gainean eztabaidatu eta informatu zela ikusta.

Bozketaren ondoren, Osoko Bilkurak Udalbatzaren gehiengo osoa osatzen duten kideen aldeko botoaz, hartu du ondorengo

**AKORDIOA**

**Lehena eta bakarra**.- PSE-EEk jarritako erreklamazioa aintzat hartzea, eta, ondorioz, Udalak publizitaterako eta propagandarako ezarritako gastuak % 20 murriztea.

Alkateordeak hurrengo erreklamazioa irakurtzeari ekin dio:

*"60.000 euroren truke Urnietateleko akzioak erosteko konpromisoari aurka egiten diogu. Funts publikoen bidez ezin da aurreko Udalbatzetako jarduketa negargarria finantzatzen jarraitu. Urnietako herritarrek ezin dute eta ez dute ordaindu behar arbuiatzen duten ezer. Ezin dute gutxienez irregulartzat jo behar diren jardueren gatibu izan".*

Alkateordeak gogora ekarri duenez, erabaki horrek administrazio-egintza irmoa du; halaber, Osoko Bilkurak bozkatuta eta onartuta, akzioak erosteko eskritura irmoa dago, ordainketa atzeratua duena; beraz, erreklamazio honen alde bozkatzen badute, horren erantzule izango direla gaineratu du, eta, ordainketa hori jaso behar duten pertsonek, zalantzarik gabe, Udalaren aurka joko dutela ez badute ordainketarik jasotzen. Horrenbestez, erreklamazio hau bozkatzea proposatu du alkateak, eta honako hau izan da emaitza:

Alde: 5 ( PSE-EE)
Aurka: 6 ( PNV-EA)
Abstentzioa: 2 ( 1 PP, 1 IU)

de 2004 se debatió e informó sobre este punto.

Tras la votación, el Pleno con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría absoluta de la Corporación, adopta el siguiente

**ACUERDO**

**Primero y único.-** Estimar la reclamación interpuesta por el PSE-EE, reduciendo en un 20% los gastos de publicidad y propaganda del Ayuntamiento.

La teniente-alcalde pasa a la siguiente reclamación planteada:

*"Oposición a los 60.000 euros por el compromiso de compra de acciones de Urnietatel. Los fondos públicos no pueden seguir financiando la nefasta operación de anteriores corporaciones. Los ciudadanos de Urnieta no pueden ni deben pagar por algo que rechazan. No pueden ser cautivos de actuaciones que, como mínimo, debemos calificar como irregulares".*

La teniente-alcalde recuerda que existe un acto administrativo firme con este acuerdo, que existe una escritura pública de compra de acciones con pago aplazado, que en su día fue sometido a votación en el Pleno y aprobado por el mismo; entonces, dice que los que voten a favor de esta reclamación podrán incurrir en responsabilidad y que no le cabe la menor duda de que las personas que deben recibir este pago irán contra el Ayuntamiento si el mismo no se realiza. El Alcalde ha propuesto someter esta reclamación a votación con el siguiente resultado:

A favor: 5 ( PSE-EE)
En contra: 6 (PNV-EA)
Abstenciones: 2 ( 1 PP, 1 IU)

Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

# 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

Ogasun, Ondare eta Enpleguko Informazio Batzordean, 2004ko maiatzaren 13an, auzi horren gainean eztabaidatu eta informatu zela ikusta.

Visto que en la Comisión Informativa de Hacienda, Patrimonio y Empleo del 13 de mayo de 2004 se debatió e informó sobre este punto.

Bozketaren ondoren, Osoko Bilkurak Udalbatzaren gehiengoa osatzen duten kideen aldeko botoaz, hartu du ondorengo

Tras la votación, el Pleno con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría de la Corporación, adopta el siguiente

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

**Lehena eta bakarra.-** Urnietateleko akzioak erosteko 60.000 euro ordaintzeko konpromisoa dela eta PSE-EEk ezarritako erreklamazioari uko egitea.

**Primero y único.-** Desestimar la reclamación interpuesta por el PSE-EE, de oposición a los 60.000 euros por el compromiso de compra de acciones de Urnietatel.

Alkateordeak hurrengo erreklamazioa irakurtzeari ekin dio:

*"Familiei diru-laguntzak emateko kontu-sailen barruan presoen familientzako diru-kopurua jasotzen da, eta bete-betean uko egiten diogu horri".*

Alkateordeak adierazi duenez, IV. kapituluan familientzako diru-laguntzen kontu-saila dago; 3.000 eurokoa da eta ez da presoen familientzako soilik, orokorra baizik. Azkenik, IUko zinegotziari gogorarazi dio, aurretiaz presoen familientzako laguntza-araudia onartu egin zuela. PSE-EEko bozeramaleak Mª Teresa Pagazaurtundua Ruiz-ek hartu du hitza, presoen familiei diru-laguntza ematearen aurka besterik ez daudela esateko. PPko zinegotziak ere presoen familiei diru-laguntza ematearen aurka daudela adierazi du. Alkateordeak adierazi duenez, araudi hori onartu baino askoz lehenagotik eman du Udalak diru-laguntza hori; gainera, ez ekitaldi honetan ez aurrekoan ez zaie diru-laguntzarik eman presoen senitartekoei, bai, ordea, beste familia-mota batzuei.

La teniente-alcalde ha dado lectura a la siguiente reclamación:

*"La partida destinada a subvenciones a familias, en la que se incluye una cuantía destinada a los familiares de presos, la rechazamos de plano".*

La teniente-alcalde expone que han encontrado una partida en el Capítulo IV, de subvenciones a familias, dice que no sólo está prevista para eso, sino que es para familias en general, y es una partida de 3.000 euros. Por último le recuerda al concejal de IU que en su día aprobó el reglamento de ayudas a familiares de presos. Pide la palabra la portavoz del PSE-EE, Mª Teresa Pagazaurtundua Ruiz para decir que ellos sólo están en contra del apoyo a la subvención de familiares de presos. Asimismo, la concejal del PP ha expresado que ella está en contra de las subvenciones a familiares de presos. La teniente-alcalde ha recordado que el Ayuntamiento viene destinando esa partida mucho antes de que se aprobara la normativa citada y además ni en el ejercicio anterior ni en el presente se ha concedido ninguna subvención a familiares de presos, pero sí a otro tipo de familias.

Jarraian, PSE-EEko zinegotziak,

Seguidamente toma la palabra el concejal del

# 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta familientzako diru-laguntzak ez dituztela bertan behera utzi nahi esan du; horrenbestez, alkateordeak zer bozkatzen ari ote den galdetu dio. PSE-EEko bozeramaleak adierazi du formazko auzi horren berri eman nahi dutela erreklamazioaren bidez. Orduan, onartutako araudia aldatu egin beharko litzatekeela eta gai hori Informazio Batzordean jorratu beharko litzatekeela azaldu du alkateordeak; PSE-EEko bozeramaleak ere horixe berretsi du, alegia, erreklamazioa ontzat joz gero araudia aldatzeko prozesua abiaraziko litzatekeela. Ondoren, alkateak erreklamazioa bozkatzea proposatu du, eta honako hau izan da emaitza:

PSE-EE, Hermenegildo Gonzalez Moran, para decir que ellos no quieren que se anule la subvención a familias, ante lo que la teniente-alcalde pregunta qué están votando. La portavoz del PSE-EE dice que ellos quieren expresar en esa reclamación esa cuestión formal. Entonces la teniente-alcalde expresa que se trataría de modificar la normativa aprobada y que tendría que tratarse en una Comisión Informativa; la portavoz del PSE-EE afirma que efectivamente la estimación de la reclamación abriría un proceso de modificación. A continuación, el Alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

Alde: 6 ( 5 PSE-EE, 1 PP)
Aurka: 6 ( PNV-EA)
Abstentzioa: 1 (IU)

A favor: 6 ( 5 PSE-EE, 1 PP)
En contra: 6 ( PNV-EA)
Abstenciones: 1 (IU)

Ogasun, Ondare eta Enpleguko Informazio Batzordean, 2004ko maiatzaren 13an, auzi horren gainean eztabaidatu eta informatu zela ikusta.

Visto que en la Comisión Informativa de Hacienda, Patrimonio y Empleo del 13 de mayo de 2004 se debatió e informó sobre este punto.

Berdinketa egon dela aintzat hartuta, Udaleko Osoko Bilkurak alkatearen kalitateko botoaren bidez, hartu du ondorengo

Visto que se ha producido un empate, el Pleno de la Corporación con el voto de calidad del alcalde, adopta el siguiente

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

**Lehena eta bakarra.-** PSE-EEk familiei diru-laguntzak emateko kontu-sailetik presoen familientzako zenbatekoa kentzeko ezarri duen erreklamazioari uko egitea.

**Primero y único.-** Desestimar la reclamación interpuesta por el PSE-EE, de rechazar la cuantía destinada a los familiares de presos, dentro de la partida destinada a subvenciones a familias.

Alkateordeak hurrengo erreklamazioa irakurri du:
*" Izenpetzaileok zalantzak ditugu UKEri, SAREKIN CBri eta SUSTRAI-ONAK enpresari zuzendutako kontu-sailak direla eta. UKEri 42.000 euroko kontu-saila bideratzea ez dugu etikoki onargarritzat jotzen, gobernu-*

La teniente-alcalde ha leído la siguiente reclamación:
*" Los suscribientes mostramos nuestras dudas respecto a las partidas destinadas al UKE, a SAREKIN CB y a la empresa SUSTRAI-ONAK. La partida de 42.000 euros al UKE no nos parece éticamente admisible por cuanto*

# 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

*erantzukizunak dituzten Udalbatzako kideek kargu garrantzitsuak (Lehendakaritza eta Finantzak) baitituzte klub horretan. Orobat ez gaude ados SUSTRAI-ONAK enpresarekin parkeak eta lorategiak mantentzeko izenpetutako hitzarmenarekin. Kontratu horren aurrekontu-zenbatekoaren aurka gaude, jakina".*

UKEri dagokionez, sinatutako Hitzarmena dagoela esan du alkateordeak, eta 1982an kluba sortu zenetik Udalaren diru-laguntzak jaso dituela inolako arazorik gabe; gainera, adierazi duenez, irabazi asmorik gabeko klub horrek gizartearen onurari begira egiten du lan, eta 300 ume eta gazte inguru parte hartzen dute bertan.

PSE-EEko zinegotziak, Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta esan du horixe dela, hain zuzen, bere erreklamazioaren funtsa, zegokion unean erakunde horien txostena eskatu baitzuen eta ez baitzioten eman, eta ez dakiela zergatık; horregatik, orain ezin dutela jakin nola erabiltzen duen klubak diru hori, zertara bideratzen duen, etab. Jarraian, bere taldeko bozeramaleak hartu du hitza eta erreklamazioak funts hori duela esateaz gain, zera eskatu du: aurrerantzean, ahal den heinean, herriaren asoziazionimoari lotutako zenbait erantzukizun ez egotea ezinbestean kudeaketa-jardueretan parte hartzen duten pertsonei uztartuta. Orduan, PNV-EAko zinegotziak, Jose Mª Aldanondo Ugaldek galdetu du ea Udaleko zinegotziak UKEko kideak direlako kendu behar ote zaion klubari diru-laguntzak, zintzo plantak egiteko besterik ez. PSE-EEko bozeramaleak erantzun dionez, batek diru-laguntzak eman eta beste batek hartzen dituenean ez da oso itxurosoa pertsona berberek zeregin horiek betetzea.

IUko zinegotziak, Juan Mª Tomasena Alzurik hartu du hitza jarraian, eta orain arte

*miembros de la Corporación con responsabilidades de gobierno, ostentan cargos de relevancia ( Presidencia y Finanzas) en dicho club. Tampoco estamos de acuerdo con el contrato suscrito con SUSTRAI-ONAK para el mantenimiento de parques y jardines. Lógicamente nos oponemos al soporte presupuestario de dicho contrato".*

En referencia al UKE, la teniente-alcalde ha dicho que hay un Convenio firmado, que desde su creación, en el año 1982, este club ha venido recibiendo subvenciones del Ayuntamiento y nunca ha habido ningún problema; para finalizar ha dicho que es un club sin ánimo de lucro, que tiene un fin social, que participan alrededor de 300 niños y jóvenes.

Toma la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo Gonzalez Moran para decir que este punto es exactamente el fondo de su reclamación y es que solicitó la memoria de estos entes y al día de hoy no le ha sido facilitada, entonces sus dudas son porque no han tenido esas memorias para estudiarlas y entonces difícilmente pueden saber cómo se gasta ese dinero, a dónde se destina, etc. Seguidamente toma la palabra la portavoz de su grupo para decir que esta reclamación tiene ese fondo y además la petición de que en lo posible y en adelante algunas responsabilidades que tienen que ver con asociacionismo del pueblo no tengan que ver exactamente con personas que están también relacionadas en actividades de gestión. Entonces, el concejal del PNV-EA, Jose Mª Aldanondo Ugalde pregunta si porque miembros del UKE sean concejales del Ayuntamiento hay que retirar la subvención ya que hay que parecer honrados. Le responde la portavoz del PSE-EE que cuando alguien da subvenciones y cuando alguien las recibe no es demasiado presentable el que los mismos sujetos estén en esas funciones.

Seguidamente toma la palabra el concejal de IU, Juan Mª Tomasena Alzuri para decir que él

## 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRARAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

eman den diru-laguntzarekin erabat ados dagoela adierazi du, eta UKEn erantzukizunak gain hartzeko borondatea, horixe dela falta dena, eta, ulertu duenez, diru hori zertan erabiltzen den egiaztatzeko txosten-mota bat dagoela. Ondoren, PNV-EAko zinegotziak Gaspar Esnaola Agestak hitza hartu, eta haiek UKEko karguengatik ez dutela inolako dirurik jasotzen gogorarazi du; aitzitik, dirua galdu egiten dutela, eta lan egiteko prest dagoen jendea izanez gero, haiek poz-pozik emango lizkieketela karguak. Horrez gain, UKEn ideologia guztietako jendea dagoela adierazi du. Hermenegildo Gonzalezek hartu du berriz ere hitza, eta berak eskatutako informazioa ikusteko inolako arazorik ez litzatekeela egon behar adierazi du. PNV-EAko zinegotziak, Jose Luis Aramendi Goikoetxeak eskatu du hitza, eta zera erantzun dio Hermenegildo Gonzalezi: UKEko dokumentazioa eskatu zuenean, Udalak emandako 42.000 euro horiek zertan erabiltzen ziren azaltzeko txostena egin zuten haiek, eta horixe aurkeztu zuten, baina zer nahi zen ez zekitela erantzun zietela, alegia, txostena nahi ote zuten, 42.000 euroak zertan erabiltzen ziren azaltzea edo beste zerbait, eta, oraindik ere, UKEko idazkariari ez dio inork ezertxo ere argitu. Horiek horrela, orain, hitzarmena sinatu ostean, jardueren txostena egingo da, eta, nolanahi ere, inork UKEri buruzko informaziorik nahi izanez gero, eurengana jo dezake zuzenean, UKE zer den ikusi behar baita. Gai hori amaitzeko, eta guztiak UKEri laguntza emateko ados daudenez, gai hori ez dela bozkatuko esan du Alkateak, eta hurrengoari ekingo diola. Alkateordeak hartu du hitza, eta erreklamazioan jasotakoaren kontra SAREKIN C.B. taldearentzako kontu-sailik ez dagoela argitu du. Kulturnietako Aurrekontuan, horretan ba omen dago Arte Eszenikoen Zentroa kudeatzeko kontu-saila, eta hori Kulturnietako Administrazio Kontseiluaren akordioan dago jasota (2003ko apirilaren 1a). Kontseilu horretan

está totalmente de acuerdo con la asignación que se viene dando y que en el UKE lo que falta precisamente es gente con voluntad de querer asumir responsabilidades; sigue diciendo que lo que él ha entendido es que haya un tipo de memoria para justificar en qué se aplica ese dinero. Después ha pedido la palabra el concejal del PNV-EA, Gaspar Esnaola Agesta para decir que ellos no reciben ningún dinero por asumir esos cargos en el UKE, sino que lo pierden y que si hay gente dispuesta a trabajar, ellos están encantados de ceder sus cargos, que en el UKE hay gente de todas las ideologías. Vuelve a tomar la palabra Hermenegildo Gonzalez para decir que no tendría que haber ningún problema en mostrarle la información que él ha pedido. Pide la palabra el concejal del PNV-EA, Jose Luis Aramendi Goikoetxea para contestarle que cuando se le pidió documentación al UKE, ellos hicieron un estudio de dónde iban los 42.000 euros que el Ayuntamiento concedía y eso se presentó, pero que al final la contestación que tuvieron es que no se sabía qué es lo que se quería, si una memoria, a qué aplicaban los 42.000 euros o qué y todavía al secretario del UKE nadie se lo ha aclarado, ahora con el Convenio que se ha firmado se elaborará una memoria de actividades, de todas fomas comenta que cuando quieran alguna información sobre el UKE pueden acudir directamente donde ellos, que hay que ver qué es el UKE. Para finalizar con este punto y a la vista de que todos están de acuerdo con apoyar al UKE, el Alcalde ha dicho que este punto no se va a votar y que se pasa al siguiente. Ha tomado la palabra la teniente-alcalde para decir que no hay ninguna partida para SAREKIN C.B tal y como aparece en la reclamación, pero sí que en el Presupuesto de Kulturnieta hay una partida para gestión del Centro de Artes Escénicas y que eso está recogido en un acuerdo del Consejo de Administración de Kulturnieta que se celebró el 1 de abril de 2003; en dicho Consejo se adjudicó

## 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRARAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

aho batez esleitu zitzaizkion aurkeztutako eskaintza bakarrari –SAREKIN S.L.ri– Arte Eszenikoen Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko lanak, lehiaketaren oinarrietan jasotako betekizun guztiak betetzen baitzituen. Hermenegildo Gonzalez Moranek erantzun dionez, bere taldea ez da SAREKIN S.L.z ari, baizik eta SAREKIN C.B.z, eta alkateordeak SAREKIN C.Brentzako kontu-sailik ez dagoela berretsi dio. Gai hori bukatzeko, SUSTRAI-ONAK dela eta, zegokion unean parkeak eta lorategiak mantentzeko lanak enpresa horri esleitu zitzaizkiola eta Udalak harekin kontratua duela alkateordeak esan du, berriz ere enkantean ateratzeko asmoa duen arren. Horiek horrela, PSE-EEri puntu horretan zer adierazi nahi duten argitzeko eskatu dio. PSE-EEko bozeramaleak erantzun dionez, aspalditik daude zerbitzua udalekotzearen alde. Horrenbestez, alkateordeak adierazi du gai hori ez dela bozkatzekoa, asmo politikoa baita, eta, beraz, Osoko Bilkurak onartu beharko lukeela parkeak eta lorategiak mantentzeko zerbitzua udalekotzea.

por unanimidad la contratación para ocupar las labores de gestión y mantenimiento del Centro de Artes Escénicas a la única oferta presentada, SAREKIN S.L., a la vista de que cumplía todos los requisitos exigidos en las bases del concurso. Le contesta Hermenegildo Gonzalez Moran que ellos no hablan de SAREKIN S.L, sino de SAREKIN C.B, a lo que la teniente-alcalde le responde que no hay ninguna partida para SAREKIN C.B. Para finalizar con este punto y en cuanto a SUSTRAI-ONAK la teniente-alcalde ha dicho que en su día se adjudicó a esa empresa y que tienen un contrato con la misma, aunque su intención es volver a sacarlo a licitación; pide al PSE-EE que aclare qué plantean en este punto. Le responde la portavoz del PSE-EE que ellos están a favor de la municipalización del servicio, que es una idea que vienen reflejando desde hace varios años. Para concluir con este punto, la teniente-alcalde ha dicho que entienden que esto no se vota sino que es una intencionalidad política, que se debiera materializar en una aprobación por parte del Pleno de municipalización del servicio de mantenimiento de parques y jardines.

Hala, bada, PSE-EEk aurkeztutako hurrengo erreklamazioa irakurri du Mª Isabel Vaquero Monterok:

*"Proiektuak ez du Udalerriko premiak asetzeko behar besteko inbertsio-ahaleginik egiten. Gastu-aurrekontu gehiena aurreko ekitaldian burutzeke geratutako proiektuetara bideratu da. Inbertsio-gastuen % 60 Begasan lokalak erosteko eta instalazio-obrak egiteko erabiltzearekin ez gatoz bat".*

Así, Mª Isabel Vaquero Montero ha dado lectura a la siguiente reclamación presentada por el PSE-EE:

*"El proyecto contiene insuficiente esfuerzo inversor para atender las necesidades del Municipio. La mayoría del presupuesto de gasto en inversiones se refieren a proyectos no ejecutados del ejercicio anterior. Estamos disconformes con que un 60% del gasto en inversiones se destine para la compra de locales en Vegasa y obras de instalación".*

Alkateordeak azaldu duenez, udal-haurtzaindegia eraikitzeko baldintzak betetzen dituzten lokalak erostea da asmoa, herriaren oraingo eta, handitu ahala, etorkizuneko premiak asetzeko; Aurrekontuan baina, ez da azaltzen Begasan egingo denik, ez baitago inolako

Explica la teniente-alcalde que su intención es comprar unos locales que cumplan los requisitos exigidos para poder acondicionar la guardería municipal ahora y en un futuro a medida que las necesidades del pueblo vayan creciendo; continua diciendo que en el

## 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

akordiorik ez antzekorik ere; Batzorde batean gai horri buruz ezer pentsatu ote zuen galdetu zitzaion, eta berak Begasako lokalak onak iruditzen zitzaizkiola erantzun besterik ez zuen egin. Talde sozialistari galdetu dio zerekin ez dauden ados: inbertsioaren % 60 udal-haurtzaindegira bideratzearekin ala beste udal-haurtzaindegi bat egitearekin... gai hori zehazteko eskatu zaio, legegintza honetako proiektu handiena baita hori. PSE-EEko bozeramaleak erantzun dionez, ez dago udal-haurtzaindegiaren kontra eta euren erreklamazioak ez du horrekin zerikusirik; aitzitik, inbertsio hori Begasako lokaletan egitearen kontra daude, eragiketa hori ez baita behar besteko argitasunez gauzatu. Alkateordeak esan duenez, bakoitzak haurtzaindegirako nahi duen inbertsio zeinahi dela ere, aurten udal-haurtzaindegirako zenbat diru erabiliko den kalkulatu behar da ezinbestean. PSE-EEko bozeramaleak erantzun dio lokalak Begasan ez erostea, horixe besterik ez dutela eskatzen. Ondoren, Juan Mª Tomasena Alzurik hartu du hitza, eta esan du bera udaleko haur-eskolaren aldekoa dela, jakina, baina ez dela zertan une honetantxe egin behar. Alkateordeak adierazi duenez, ordea, kontua premiazko da, egungo haurtzaindegia txiki geratu baita, eta ez baitago psikomotrizitateko gunerik ez eta jolas-gelarik ere; beraz, lehenbailehen egin beharko litzatekeela uste du, eta halaxe eskatzen du Haurtzaroaren eta Gaztaroaren Planak, Udalak onartutakoa. Bestalde, inolako asmo txarrik ez dagoela adierazi du, eta berdin zaiela zein lokal hautatzen diren, betiere lokal horiek gutxieneko eskakizunak betetzen badituzte. Azkenik, alkateordeak puntu hori bozkatu egin behar ote den galdetu du, guztiak udal-haurtzaindegiaren alde daudela ikusten baitu; bestalde, lokalak Begasan edo beste inon erosiko ote diren, gai hori Aurrekontuari ez dagokiola azpimarratu du, aurrerago lehiaketa bidez, enkante bidez... erabakitzekoa baita. Talde sozialistak ere puntu

Presupuesto no aparece que se vaya a hacer en Vegasa, porque no hay ningún acuerdo ni nada por el estilo, sí que se preguntó en una Comisión si había algo pensado y ella respondió que los locales de Vegasa le parecían buenos. Entonces pregunta al grupo socialista con qué no están de acuerdo, con que se destine un 60% a inversión en una guardería municipal, si están en contra de hacer una nueva guardería municipal... pide que se concrete este punto porque el más ambicioso de sus proyectos esta legislatura es invertir en la guardería municipal. Responde la portavoz del PSE-EE que ellos no están en contra de la guardería municipal y que su reclamación no tiene nada que ver con ese concepto, lo que ellos no estiman oportuno es que esa inversión se realice en los locales de Vegasa, porque la operación de Vegasa no se ha realizado con la suficiente claridad. La teniente-alcalde dice que independientemente de qué tipo de inversión quiera cada uno para la guardería, es necesario calcular cuánto se destina este año en inversiones para la guardería municipal. Le contesta la portavoz del PSE-EE que ellos sólo dicen que no se compren en Vegasa, nada más. Después pide la palabra Juan Mª Tomasena Alzuri para expresar que él por supuesto está a favor de la escuela infantil municipal, pero no tiene porqué ser ahora mismo, a lo que la teniente-alcalde le responde que el asunto tiene prisa y que la guardería actual se ha quedado pequeña, no hay espacios de psicomotricidad ni aulas de juego, considera que hay que hacerlo cuanto antes y además así lo demanda el Plan de Infancia y Juventud aprobado por el Ayuntamiento; señala también que no hay ninguna mala intención y que a ellos les da igual qué locales sean siempre que cumplan unos mínimos. Por último la teniente-alcalde pregunta si hay que votar este punto o no, ya que entiende que todos están a favor de la guardería municipal y el tema de que los locales se compren en Vegasa o en otro sitio no es presupuestario, sino que se decidirá más

# 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

hori ez dela bozkatu behar dio, haiek ulertarazi nahi zutena ulertu egin dela uste baitu.

adelante mediante un concurso, subasta... Por parte del grupo socialista se dice que no hay que votar este punto, porque entienden que se ha entendido lo que ellos quieren explicar.

Horrenbestez, hurrengo erreklamazioari ekin zaio:

*"Aurrekontuak bazter utzi du ARNASAk garapen iraunkor alternatiboaren Planaren proposamenari buruzko aipamen oro"*.

Alkateordeak dio ez dakitela zehatz-mehatz zenbat diru dagoen tartean ez eta zer proposatzen den zehazki. ARNASAk aurkeztutako proposamena bi urtekoa eta gutxi gorabehera 300.000 eurokoa zela erantzun dio Hermenegildo Gonzalez Moranek, baina ez dutela proposamen zehatzik egin nahi izan, euren asmoa ez baitzen bozkatzen joatea (eta horixe egiten ari da); beraz, berak 30.000 euroko zenbatekoa ezarriko lukeela hasiera batean. Jarraian, Juan Mª Tomasena Alzurik hartu du hitza, eta plana abiarazteko, aurten 114.000 euro esleitzea proposatu du, baina borondate politikoa behar dela gogorarazi du; beraz, zinegotzi sozialistak proposatutako zenbatekoari txikiegi irizten dio, berak, gutxienez, 60.000 euro esleituko balituzke aurten, plan alternatiboa abian jartzeko.

Por lo tanto, se ha pasado a la siguiente reclamación:

*"El Presupuesto omite cualquier referencia a la propuesta de ARNASA, sobre Plan alternativo de desarrollo sostenible"*.

Dice la teniente-alcalde que no tienen ninguna concreción de cuánto dinero se está hablando o qué es lo que se propone exactamente. Le responde Hermenegildo Gonzalez Moran que la propuesta que ARNASA presentó era a dos años, la cantidad unos 300.000 euros, pero que no han querido hacer una propuesta concreta porque su idea no era ir votando como lo están haciendo, entonces él plantearía en principio 30.000 euros. Seguidamente toma la palabra Juan Mª Tomasena Alzuri diciendo que lo que él plantea es una asignación de 114.000 euros para este año para iniciar; pero que más que nada se trata de voluntad política, que la cantidad planteada por el concejal socialista le parece insuficiente y que él plantearía por lo menos 60.000 euros para este año para la puesta en marcha del plan alternativo.

Une honetan, arratsaldeko 6:00etan, Mª Asuncion Guerra Alonso PPko zinegotziak hitza hartu du Osoko Bilkurari barkamena eskatzeko, premiazko kontu bat dela eta joan egin behar baitu; jarraian, PP zinegotzia Osoko Bilkuren Aretotik irten egin da.

En este momento, siendo las 18:00 horas, la concejal del PP, Mª Asuncion Guerra Alonso pide la palabra para pedir disculpas al Pleno ya que tiene algo urgente y debe ausentarse; a continuación la concejal del PP abandona el Salón de Plenos.

PNV-EAko zinegotziak, Jose Mª Aldanondo Ugaldek eskatu du hitza, eta, esan duenez, aipatutako planaren barruan, San Markoseko Mankomunitateari laga zaio hiri hondakin solidoen kudeaketa; planean bertan, orobat, sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko kanpaina gauzatzea aurreikusten da, eta bere ustez horixe

Pide la palabra el concejal del PNV-EA, Jose Mª Aldanondo Ugalde, para decir que dentro del citado plan, la gestión de los residuos sólidos urbanos está cedida a la Mancomunidad de San Marcos y que se puede entrar en contradicción con la Mancomunidad y asimismo, que dentro del plan se preve una campaña de sensibilización

da onartzeko modukoa. PSE-EEko bozeramaleak erantzun dionez, ez du zertan kontraesankorra izan behar; aitzitik, elkarren osagarri izan daitezke, eta, gainera, ingurumen-sentsibilizazioan sakontzea dugu eskuartean. Juan Mª Tomasena Alzurik hartu du hitza, esperientzia pilotua dela gogorarazteko; hala, herri osoak parte hartzea eskatzen duela, eta, horrek prestakuntza eta sentsibilizazioa eskatzen duela.

Alkateak hartu du hitza, sentsibilizazio-kanpainarako kontu-sail bat bideratzea ontzat jotzen duela adierazteko, eta 30.000 euroko kontu-saila proposatzen dutela sentsibilizazio-kanpainak gauzatzeko soilik erabili ahal izango dena. Orduan, Virginia Sabando Ortiz ekonomia-aholkulariak kontu-sail hori IV. kapituluko diru-laguntzei legokiokeen galdetu du; baina alkateak eta alkateordeak II. kapituluko kanpainen kontu-sailen barnean legokeela erantzun diote. Orduan, kanpaina horiek zuzenean Udalak bere baitan hartuko ote lituzkeen galdetu du ekonomia-aholkulariak, eta baietz erantzun diote. Jarraian, diru horri zentzua emateko neurri eragingarrienak zeintzuk diren gero azaldu beharko dutela adierazi du PSE-EEko bozeramaleak.

y concienciación, que es lo que él considera se podría aprobar. Le responde la portavoz del PSE-EE que no tiene porqué ser contradictorio, pueden ser complementarios y que además están hablando de profundizar una sensibilidad medioambiental. Toma la palabra Juan Mª Tomasena Alzuri para expresar que es una experiencia piloto y se trata de hacer partícipe a toda la localidad y eso requiere formación y sensibilización.

Toma la palabra el Alcalde para expresar que él entiende que para la campaña de sensibilización se puede prever una partida, que ellos proponen que sea de 30.000 euros y exclusivamente para las campañas de sensibilización. Entonces la asesora económica, Virginia Sabando Ortiz pregunta si esta partida sería de subvenciones, del Capítulo IV; a lo que le contestan el Alcalde y la teniente-alcalde que sería del Capítulo II, para campañas; pregunta la asesora económica si entonces esas campañas las asumiría el Ayuntamiento directamente, a lo que se le responde que sí. La portavoz del PSE-EE expresa que después tendrán que desarrollar cuáles son las medidas más eficaces para darle sentido a ese dinero.

Ondoren, alkateak erreklamazioa bozkatzea proposatu du, eta honako hau izan da emaitza:

Alde: 12 ( 6 PNV-EA, 5 PSE-EE, 1 IU)
Aurka: 0
Abstentzioa: 0

A continuación, el Alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 12 ( 6 PNV-EA, 5 PSE-EE, 1 IU)
En contra: 0
Abstenciones: 0

Ogasun, Ondare eta Enpleguko Informazio Batzordean, 2004ko maiatzaren 13an, auzi horren gainean eztabaidatu eta informatu zela ikusta.

Visto que en la Comisión Informativa de Hacienda, Patrimonio y Empleo del 13 de mayo de 2004 se debatió e informó sobre este punto.

Bozketaren ondoren, Osoko Bilkurak Udalbatzaren gehiengo osoa osatzen duten kideen aldeko botoaz, hartu du ondorengo

Tras la votación, el Pleno con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría absoluta de la Corporación, adopta el siguiente

Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

# 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

## AKORDIOA

**Lehena eta bakarra.-** PSE-EEk ezarritako erreklamazioa aintzat hartzea, eta 30.000 euroko kontu-saila sartzea Aurrekontuaren II. kapituluan, ingurumen-sentsibilizazioko kanpainak burutzeko.

Ondoren, alkateordeak hurrengo erreklamazioa irakurtzeari ekin dio:

*" Aski nabarmena da aurrekontuan gizarte-zerbitzuetarako jasotako gastuak gutxiegi direla, udalerriak gai horretan dituen premiak aintzat hartuta".*

Urnietak Gizarte Zerbitzuetan itxarote-zerrendarik ez duela sekula izan gogorarazi du Mª Isabel Vaquero Monterok, eta bera Udaletxean dagoenetik ez duela ezagutzen aldeko txosten teknikoa jasota, artatu ez den kasu bakar bat ere. Azaltzen jarraitu du esanez, geratutako zenbatekoa % 15 handitu dela ekitaldia ixterakoan, eta, hortaz nahikotzat jotzen dutela. PSE-EE bozeramaleak hartu du hitza ardura politikoa dela adierazteko; halaber, gobernu-taldeak kapitulu batzuk ez dituela gizarte-ekintzatzat aintzat hartzen esan du, eta eurek halakotzat hartuko lituzketela horietako zenbait, hala nola, zenbait talde monitorizatzea eta gaur egun udalerrian egiten diren ekintzen artean aintzat hartzen ez diren batzuk. Azkenik, eurek proposatutakoak zentzu politiko hutsa duela adierazi du. Orduan, ez dela bozketarik egin behar esan du alkateordeak, eta gainerakoek ados daudela azaldu dute.

Amaitzeko, azken alegazioari dagokionez *"Aurrekontuek, azken batean, ez diete Urnietako herritarren benetako arazoei erantzuna ematen"* alkateordeak dio balioespen hutsa dela, eta ezin denez zenbatu, ezinezkoa dela hori bozkatzea.

## ACUERDO

**Primero y único.-** Estimar la reclamación interpuesta por el PSE-EE, presupuestando una partida de 30.000 €, en el Capítulo II, para campañas de sensibilización medioambiental.

A continuación, la teniente-alcalde pasa a leer la siguiente reclamación:

*"Son manifiestamente insuficientes los gastos presupuestados en materia de Servicios Sociales respecto a las necesidades del municipio en esta materia".*

Mª Isabel Vaquero Montero ha expresado que Urnieta nunca ha tenido lista de espera en los Servicios Sociales, que desde que ella está en el Ayuntamiento no conoce un caso en el que haya un informe técnico favorable y no se haya atendido ese servicio. Sigue explicando que al cierre han incrementado un 15% la cantidad que quedaba, por lo tanto, lo consideran más que suficiente. Toma la palabra la portavoz del PSE-EE para decir que es una consideración política, que hay algunos capítulos que el equipo de gobierno no contempla como acción social, que ellos sí lo harían, como algún tipo de monitorización sobre ciertos colectivos, algunas acciones que no están contempladas en lo que actualmente se desarrolla en el municipio, que tiene un sentido netamente político lo que ellos plantean. Entonces, la teniente-alcalde dice que entienden que no hay que proceder a la votación, a lo que el resto se muestra de acuerdo.

Por último, la teniente-alcalde dice que con respecto a la última alegación, cuando se dice que *"Son, en definitiva, unos Presupuestos que no vienen a dar respuesta a los problemas reales de la población de Urnieta..."*, creen que es una valoración política que no se puede cuantificar y por lo tanto, no se puede someter a votación.

# 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

PSE-EEk aurkeztutako erreklamazio guztiak ebatzita, alkateordeak IUk aurkeztutakoak ebazteari ekingo diola adierazi du; hala, bada, IUren lehenengo alegazioa irakurtzen hasi da:

*"Ez da zenbatekorik bideratu lurzorua gordetzeko inbertsioak egiteko, hala nola: etxebizitzetarako, egingo den anbulatoriorako..."*

Alkateordeak adierazi duenez, une honetan, Urnietako Arau Subsidiarioak ari dira egiten, eta horiei jarraiki antolatuko da udalerriko lurzorua; bestalde, Ondarearen Legearen arabera, betebehar hori 7.000 biztanletik gorako udalerriek dutela adierazi du, baina Urnietak, ordea, 5.800 besterik ez dituela; azkenik, erreklamazio horrek aurrera jarraituko badu, IUko zinegotziak eskaera hori dirutan adieraztea gustatuko litzaiokeela esan du alkateordeak. Juan Mª Tomasena Alzurik erantzun dionez, aurreko Osoko Bilkuran emandako dokumentazioan agertzen da datu hori, baina berak itsulapikoaren filosofia ekarri nahi du auzitara, premiazkotzat jotzen baitu urte honetarako nahiz hurrengorako zenbateko batzuk eskuragarri izatea, lehentasuneko helburuak betetzen hasteko. Mª Isabel Vaquero Monterok Aurrekontuan itsulapikoaren kontua ez dela bideragarri erantzun dio, eta erosketa horiek egin behar diren urteko aurrekontuetan bertan gordeko dela horretarako kontu-saila, jarduera gauzatu behar den urtean prestatu behar baita horretarako zenbatekoa. Etorkizun hurbilerako zenbatekoak esleitzea ezinezkoa ote den galdetu du IUko zinegotziak, eta alkateordeak erantzun dio gastua egingo den aurrekontu-ekitaldian bertan egin behar dela, alegia, ezin dela urte horretan burutuko ez den gastu baterako kontu-sailik esleitu. Alkateak hartu du hitza, eta adierazi duenez, Arau Subsidiarioen arabera ezarriko da zein lurzoru-mota dagoen eta zein inbertsio egin daitekeen

Finalizada la resolución de las reclamaciones presentadas por el PSE-EE, la teniente-alcalde expresa que se va a proceder a resolver las planteadas por IU; así, entrando al fondo de las alegaciones presentadas por IU, ha dado lectura a la primera:

*"No se dedica ninguna cantidad a inversiones para reserva de suelo. Bien para: Viviendas, futuro Ambulatorio...".*

La teniente-alcalde ha expresado que ahora mismo están en elaboración las nuevas Normas Subsidiarias de Urnieta que planificarán el pueblo; por otro lado, ha dicho que la Ley de Patrimonio establece que esta obligatoriedad es para los municipios de más de 7.000 habitantes y Urnieta tiene 5.800; por último expresa que si hay que seguir con esta reclamación, les gustaría que el concejal de IU planteara en dinero la petición. Juan Mª Tomasena Alzuri ha respondido que está especificado en lo que entregó en el Pleno anterior y que lo que él plantea es la filosofía de la hucha, tener ya disponibles unas cantidades este año y el que viene, de cara a poner en práctica los objetivos más prioritarios. Le responde Mª Isabel Vaquero Montero que en el Presupuesto lo de la hucha no funciona, que el año que haya que comprar se reservará una partida presupuestaria para ello, que el gasto debe disponerse el año que haya que formalizarse. El concejal de IU pregunta si no se pueden asignar cantidades con objetivos de futuro inmediato, a lo que le responde la teniente-alcalde que tiene que preverse en el ejercicio presupuestario que se vaya a proceder al gasto, que no se puede destinar una partida para algo que no vayan a gastar en este año. Toma la palabra el Alcalde para decir que las nuevas Normas Subsidiarias establecerán los diferentes tipos de suelo y dónde se puede invertir para reserva, que esto debe identificarse en las Normas Subsidiarias. Seguidamente toma la palabra el concejal del PNV-EA, Jose Mª

## 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

lurzorua gordetzeko. Jarraian, Jose Mª Aldanondo Ugalde PNV-EAko zinegotziak hartu du hitza, filosofian ados daudela adierazteko, haiek ere lurzorua gordetzeko inbertsioak egin behar direla uste baitute; metodologiarekin, ordea, ez daudela ados adierazi du, aurten egingo diren inbertsioen aurrekontua egiten ari baita euren taldea, eta, beraz IUren proposamena ezin dela aurten egin, Arau Subsidiarioak idatzi gabe baitaude oraindik. Juan Mª Tomasena Alzurik erantzun duenez, bera ere ohartzen da ezin dela halakorik berehala gauzatu, baina Arau Subsidiarioak burutu bezain laster, horretarako prest egotea eskatu du. Orduan, Arau Subsidiarioak garatzen direnerako gurari gisa jasotzea proposatu du alkateordeak, eta IUko zinegotzia bat etorri da; beraz, hurrengo erreklamazioari ekin zaio:

*"Hezkuntzari dagokionez, Urnietan ez dago bigarren hezkuntzako oraingo gelak ziurtatzeko inolako ekimenik, ez eta batxilergo publikoko zikloa kudeatzeko ekimenik ere".*

Alkateordeak hori ez dela horrela adierazi du, Oso Bilkurak legegintza hasieran akordio bat onartu baitzuen aho batez, eta horren bidez konpromiso hau hartu zen: *"Datozen Arau Subsidiarioak idazterakoan, eskola-erabilerarako lurzorua aintzat hartzea, eta, ondoren, Eusko Jaurlaritzaren esku jartzea, Egape Ikastolan bigarren hezkuntzarako eraikina egin dadin".* Horrez gain, alkateordeak aktan jasotzea nahi izan du Hezkuntza ez dela Udalaren eskumena Eusko Jaurlaritzarena baizik, nahiz eta udalak beste erakunde horrekin lankidetzan jardun behar duen. Akordio hori zegoela aintzat hartu duela adierazi du IUko zinegotziak, eta, horrenbestez, IUk egindako hurrengo erreklamaziora igaro da:

*"Ez gatoz bat Haur-eskola Begasan eraiki dadin lokalak erosteko eta obrak gauzatzeko, 1.261.620 euroko inbertsioa egitearekin".*

Aldanondo Ugalde para decir que en la filosofía están de acuerdo, que ellos también piensan que hay que invertir en reserva de suelo, pero que en la metodología no aciertan, que ellos están presupuestando las inversiones que piensan realizar este año, que lo que él propone no lo pueden realizar este año porque las Normas Subsidiarias están sin redactar. Le responde Juan Mª Tomasena Alzuri que él está de acuerdo en que existe incapacidad de materialización práctica inmediata, pero que él reivindica que en cuanto haya Normas Subsidiarias que haya una disponibilidad. Entonces la teniente-alcalde propone recogerlo como intencionalidad de cara a cuando estén elaboradas las Normas Subsidiarias, a lo que el concejal de IU se muestra conforme; por lo tanto, se pasa a la siguiente reclamación:

*"En el tema de Educación no hay ningún tipo de iniciativa de asegurar las actuales aulas de Secundaria, así como de gestionar el ciclo de Bachiller público en Urnieta".*

La teniente-alcalde ha expresado que esto no es así, ya que existe un acuerdo de Pleno que aprobaron al iniciar la legislatura, en el cuál el Pleno se comprometió por unanimidad a *"Calificar en la redacción de las futuras Normas Subsidiarias suelo para uso escolar y ponerlo a disposición del Gobierno Vasco, para que construya el nuevo edificio de secundaria de la Ikastola Egape".* Además la teniente-alcalde quiere hacer constar que la competencia en Educación no es del Ayuntamiento sino del Gobierno Vasco, aunque ellos tienen que colaborar con esa Institución. El concejal de IU dice que a posteriori se ha percatado de que existía ese acuerdo, por lo tanto se pasa a la siguiente reclamación presentada por IU:

*"Desacuerdo en aplicar 1.261.620 € en inversiones, para la compra de local y obras de instalación con destino a Escuela Infantil, en Vegasa".*

**2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRAREN AKTA**
**ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.**

Alegazio hori udal-talde sozialistak aurkeztutakoen barnean jorratu denez, hurrengoari ekin zaio:

*"Ezinezkoa da Gizarte-ongizaterako aplikatutakoa aztertzea, ez baitago iaz aplikatutakoari buruzko inolako informaziorik".*

Juan Mª Tomasena Alzurik aditzera eman duenez, egoera hori errekurtsoak aurkezteko uneari dagokio, baina, ondoren, informazio guztia eskuratu zuen, eta auzia, beraz, konponduta dago; horrenbestez, hurrengo alegazioa irakurtzeari ekin zaio:

*"Aurrekontuaren proiektuak muzin egiten dio erabat Hiriko Hondakin Solidoei buruz Arnasa herri-plataformak egindako proposamenari. Ez da kontuan hartu herriaren parte-hartzea, Herriko Agenda 21ean objektibizatutakoa".*

Alkateordeak adierazi duenez, arestian ingurumen-sentsibilizazioko kanpainak egiteko 30.000 euro ematea erabaki dute; beraz, hurrengo alegazioa hartu da hizpide:

*"Ez gatoz bat bideak garbitzeko eta parkeak nahiz lorategiak mantentzeko kontratuetarako Aurrekontuetan ezarri den dirutzarekin".*

Alkateordeak gai horri buruz PSE-EEk aurkeztutako erreklamazioetan eztabaidatu dela adierazi du; nolanahi ere, zera adierazi du, une honetan Sustrai-Onak enpresarekin kontratua dutela eta tarifak horiexek direla; hala, zerbitzua udalekotu egin behar baldin bada, hori hurrengo bilkuretan erabaki beharko dela. IUko zinegotziak argi utzi nahi izan du ezinbestekoa dela zerbitzu horiek udalekotzea; orduan, alkateordeak dagokion unean azterketa bat egitea proposatu du, zinegotzi guztiek gai horri buruz erabakitzeko aukera izan dezaten; beraz, ez du beharrezkotzat jo puntu hori bozkatzea, PSE-EEkoaren barnean baitzegoen. IUko zinegotzia bat datorrela adierazi du, eta hurrengo erreklamazioa irakurtzeari ekin dio.

Dado que esta alegación se ha tratado dentro de las presentadas por el grupo municipal socialista, se pasa a la siguiente:

*"Imposibilidad de analizar lo aplicado para Bienestar Social, al carecer de información alguna sobre lo aplicado el año anterior".*

Juan Mª Tomasena Alzuri señala que eso fue en aquel momento, que posteriormente ha tenido información y ya está resuelto; por lo tanto se da lectura a la siguiente alegación:

*"El proyecto de Presupuesto ignora totalmente la Propuesta de la Plataforma Ciudadana Arnasa sobre los Residuos Sólidos Urbanos. No se tiene en cuenta la participación ciudadana que objetiviza la Agenda Local 21".*

La teniente-alcalde ha dicho que ya se ha llegado a un acuerdo y que se dispondrán 30.000 euros para campañas de sensibilización medioambiental; por lo tanto, da lectura a la siguiente alegación:

*"Oposición ante las elevadas cantidades presupuestadas para los contratos de limpieza viaria y mantenimiento de parques y jardines".*

La teniente-alcalde expone que sobre este punto también se ha discutido anteriormente, con las reclamaciones presentadas por el PSE-EE; lo único que en estos momentos tienen un contrato con Sustrai-Onak y las tarifas son las que son, entonces si se tiene que proceder a la municipalización de este servicio es algo que hay que decidir en actos posteriores. El concejal de IU quiere dejar claro que la necesidad de la municipalización de estos servicios es vital; entonces la teniente-alcalde propone hacer un estudio en su día para que todos los miembros de la Corporación puedan decidir sobre este aspecto y comenta que no hace falta votar este punto, ya que iba englobado con el del PSE-EE, a lo que el concejal de IU se muestra conforme. sí, la teniente-alcalde pasa a leer la siguiente

Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

## 2004KO MAIATZAREN 18KO UDALBATZARRARENAKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 18 DE MAYO DE 2004.

*"Aholkularitza juridikoak eta teknikoak oso garestiak dira".*

Udaleko publizitatearen eta propagandaren gastuak % 20 murriztea erabaki dela adierazi du alkateordeak; hortaz, hurrengo erreklamazioa hartu da hizpide.

*"Aurrekontuak ez dira parte-hartzaileak eta ez dute Urnietako Udalerriaren benetako arazoei aurre egiteko behar besteko eragingarritasunik".*

Arazo politikoa dela hori adierazi du IUko zinegotziak Juan Mª Tomasena Alzurik, eta, beraz, erreklamazioa ez dela bozkatu behar.

Erreklamazio guztiak irakurrita, Alkate-Presidenteak dio alegazio guztiak ebatzi ostean behin betiko onartu dela 2004ko Aurrekontu Orokorra.

Azkenik, jorratzeko gai gehiago ez dagoenez, alkateak amaitutzat jo du osoko bilkura berezia; hala, arratsaldeko seiak eta laurdenetan amaitu da bilera, eta nik, Urnietako bitarteko idazkari naizenez, hala egiaztatu dut alkatearen oniritziarekin, Urnietan 2004ko ekainaren 8an.

reclamación:

*"Las Asesorías jurídicas y técnicas externas suponen un gasto muy elevado".*

La teniente-alcalde dice que ya se ha acordado una reducción del 20% en los gastos de publicidad y propaganda del Ayuntamiento; por lo tanto, se pasa a la siguiente reclamación:

*"Son unos Presupuestos poco participativos y poco eficaces para afrontar los problemas reales del Municipio de Urnieta".*

El concejal de IU, Juan Mª Tomasena Alzuri expresa que esto es un problema político, que no es una reclamación que haya que votar.

Finalizada la lectura de todas las reclamaciones, el Alcalde-Presidente señala que una vez resueltas las alegaciones, el Presupuesto General del ejercicio 2004 queda aprobado definitivamente.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las seis y cuarto, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del alcalde, en Urnieta a 8 de junio de 2004.

Stua.: Beatriz Garate Cortabarria
Bitarteko idazkaria,

Stua.: Florentino Ugalde Atxaga
Alkate-lehendakaria.